

MERKATARITZA SUSPERTZEKO “ERROTA HERRIA” BONO KANPAINA

2025eko apirila

GERTU Zumaiako Merkatarien Elkarteak, Zumaiako Udalaren laguntzarekin, merkataritza suspertzeko, “**ERROTA HERRIA**” bono kanpaina berri bat jarriko du martxan.

Kanpaina honen bidez, udalerriko saltoki txikiei lagundu nahi zaie erosketak bidez kontsumoa sustatuz, konkretuki:

- Herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreetan erosketak sustatzea eta herrian erosteko ohiturak areagotzea.
- Kontsumitzaileek, udalerriko bizilagunek zein Zumaian kontsumitzen duten bisitariak, hobaria eskuratu ahal izatea Zumaiako saltokietan erosteagatik.

-OINARRIAK-

EKINTZAREN HELBURUA

Zumaiako merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza sektoreetan kontsumoa sustatzea.

EKINTZAREN EZAUGARRI OROKORRAK

1. 40€ko balioa duten 1.000 bono jaulkiko dira.

- Bono bakoitza erosteko kostua 30€koa izango da eta, hauek, ekimen honi atxikitako Zumaiako establezimenduetan kontsumitzeko 40€ko balioa izango dute.

- Pertsona bakoitzak erosketak bakarrik egin ahal izango du eta erosketan bi bono erosi ahal izango ditu, bat bere izenean eta bestea beste norbaitentzat. Erosketak burutzeko, NANaren originala, kopia edo argazkia aurkeztea beharrezkoa izango da.

2. Bono bakoitza 10€ko 4 balek osatuko dute, eta baleak banaka erabili ahal izango dira. Bale bakoitza behin bakarrik erabili beharko da, ekimenari atxikitako establezimenduetako batean.

- Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.

- Bonoak edo baleak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.

3. Bonoak ezin direnez eskudirutan trukatu eta bonoaren zenbatekoa ez denez inola ere itzuliko, produktua itzultzen bada, establezimenduak erosketaren zenbateko osoko bono propio bat jaulki beharko du.

4. Interesatuak 2025ko apirilaren 10etik aurrera erosi ahal izango dituzte bonoak, jaulkiko diren bonoak agortu arte, aurrez aurre turismo bulegoan.

Ordutegia:

- asteartetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
- Igandetan 10:00etatik 14:00etara.
- Astelehenetan itxita.

5. Bonoak erosten dituzten pertsonak 2025ko apirilaren 10etik 2025ko ekainaren 10era bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, baliorik gabe geratuko dira bonoak.

a) ESTABLEZIMENDUEKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

1. EKIMENERA BATZEA

Edozein pertsona fisiko edo juridikok parte hartu ahal izango du kanpaina honetan, baldin eta bere enpresa-jarduera merkataritza, zerbitzu edo ostalaritza sektorearen barruan kokatzen bada, kalean establezimendu irekia badu ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokion altarekin, eta honako ezaugarriak betetzen baditu:

- Establezimendua Zumaian izatea.
- Enpresak gehienez besteren konturako 10 langileko lan-taldea izatea kontratatuta.

Zalantzazko kasuetan eta egoera berezietan, GERTU Merkatarien Elkarteak erabaki ahal izango du saltokiaren parte-hartze eskaera onartu edo ez.

2. ESKAERA ETA PARTE-HARTZE PROZESUA

i) Eskaera

Parte hartu nahi duten establezimenduek izena eman beharko dute, honako agiri hauek aurkeztuta:

- Parte hartzeko eskaera-orria sinatuta.
- Beste agiri batzuk: parte-hartze eskaera hobeto baloratu ahal izateko, GERTU elkarteak eskubidea izango du beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu eskatzeko.

ii) Atxikitako establezimenduaren betebeharrak.

Atxikitako enpresek kanpainako informazio-materialak jasotzeko, kokatzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, eta establezimenduan ondo ikusteko moduan jarriko dituzte. Informazio-materiala honako hau izango da:

- Kanpainako parte-hartzaile moduan identifikatzen dituen kartela.

- Kanpainaren ezaugarriei buruzko informazio esku-orria.

Aldi berean, atxikitako enpresetako arduradunek konpromisoa hartzen dute establezimenduan erabilitako bonoak (edo baleak) egiazkoak direla egiaztatzeko, eta zalantzarik izanez gero, txartelaren erabiltzaileari izena, NANA eta harremanetarako telefonoa eskatzeko.

Kontsumitzaileak bonoa erabili ondoren, enpresa arduratuko da txartela Zumaiko Turismo Bulegora (GERTU elkartearen bulegoa) ekartzen, 2025eko ekainaren 30a baino lehen, banku-transferentzia bidez kobratzeko.

Saltoki bakoitzak ziurtatu beharko du bonoa behar bezala beteta ekartzea. Bezeroaren datu guztiak eta establezimenduaren zigilua edo izena ondo beteta ekarriko ditu. Horrela ez bada bonoa ez da onartuko.

Enpresa edo izen sozial berak, gehienez 5.000,00€ko balioa arte onartu ahal izango ditu bonoak. Behin zifra horretara iritsita, une horretatik aurrera saltoki edo enpresa horretan bonoak erabili nahi dituzten bezeroei jakinarazi beharko dio ezin dizkiola bonoak onartu..

iii) Kanpainarako eskabideen informazioa eta aurkezpena:

Kanpainari buruzko informazio guztia eta kanpainarekin bat egiteko eskabide-orriak interesdunen eskura egongo dira turismo bulegoan edo www.zumaigertuelkarte.eus.

Parte-hartze eskaerak aurkezteko epea 2025eko apirilaren 4ean, eguerdiko 12:00etan amaituko da. Eskaerak turismo bulegora eraman beharko dira edo zumaiakarte@gmail.com helbidera bidali beharko dira.

3. ATXIKITAKO SALTOKIEK BONOAK TRUKATZEKO PROZEDURA

- Bono bakoitza behar bezala beteta dagoela ziurtatu bezeroarekin amaitu baino lehen. Bezeroak bere izen abizenak, nan zenbakia eta sinadurarekin bete beharko du bonoa. Establezimenduak bere zigilua edo izena jarri beharko du dagokion atalean.
- Jasotako bono originala edo originalak gorde.
- Turismo bulegoan aurkeztu.

Aurkeztutako bonoei dagokien zenbatekoa, establezimenduari abonatu zaio bonoak entregatzeko unean horretarako emandako kontu-zenbakira transferentzia eginez.

b) KONTSUMITZAILEEKIN LOTUTAKO INFORMAZIOA

1. OINARRIAK ONARTZEA

Bonoak eskuratzeak dokumentu honetan jasotzen diren oinarriak onartzea dakar.

2. BONOAK ESKURATZEA ETA ERABILTZEA

i) Bonoak eskuratzeko eskubideak eta mugak.

Kontutan izan beharrekoak:

- Bonoak 18 urtetik gorako edonork erosi ahal izango ditu, Zumaian bizi zein ez.
- Bono bakoitza erosteko kostua 30€koa izango da eta, hauek, ekimen honi atxikitako Zumaiako establezimenduetan kontsumitzeko 40€ko balioa izango dute.
- Pertsona bakoitzak erosketa bakarra egin ahal izango du eta erosketan bi bono erosi ahal izango ditu, bat bere izenean eta bestea beste norbaitentzat. Erosketa burutzeko, NANaren originala, kopia edo argazkia aurkeztea beharrezkoa izango da.

ii) Eskuratzeko moduak

Interesatuak 2025eko apirilaren 10etik aurrera erosi ahal izango dituzte bonoak, jaulkiko diren bonoak agortu arte, aurrez aurre turismo bulegoan:

Bonoak erosteko unean bertan ordaindu behar dira. Banku-txartela erabiliko da lehenatasunezko ordainketa-sistema gisa.

iii) Bonoen erabilera

Bonoak erosten dituzten pertsonak 2025ko apirilaren 10etik 2025ko ekainaren 10era bitartean erabili ahal izango dituzte, bi datak barne. Epe hori igarotakoan, baliorik gabe geratuko dira bonoak.

Bonoak kanpainari atxikitako saltokietan erabili ahal izango dira. Saltoki horiek behar bezala identifikatzeko, atxikitako saltokien zerrenda osoa emango da, bonoak ematearekin batera. Era berean, saltokien zerrenda hori ikusgai egongo da www.zumaiagertuelkartea.eus.

Erabiltzaileak bono (edo bale) originalak aurkeztu eta entregatu beharko ditu horiek erabiliko dituen establezimenduan. Merkatariak erabiltzaileari izen-abizenak, NAN zenbakia eta sinadura jartzeko eskatuko dio. Ezinbestekoa izango da bonoa behar bezala beteta egotea trukatu ahal izateko.

Erosketaren zenbatekoa balearen zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Bonoak edo baleak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa. Gehienez 4 bono (16 bale=160€) pilatu ahal izango dira erosketa berean.

iv) Erabiltzailearen erantzukizuna

Bonoak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonorik edo ordaindutako zenbatekorik ez dela itzuliko berauek galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezkeen bestelako egoerengatik.